

## Jainkoaren legez

*Euskaldunon Egunkaria*, 1992-04-27: 2.

Zerbaiten jabetza nola zilegitzen den, misterio bat izan da beti niretzat. Alegia, zeuk boligrafo bat daukazu eskuetan, eta zurea dela diostazu; eta neuk unetxo horretan sinesten dizut, baina berehala sortzen zait kezka: nola zilegitu dezakezu zeuk boligrafo beltz arrunt hori zurea dela? Eta pentsatzen jarri, eta gogora datorkit zeuk, zerorrek, eskatu diazula heranegun nire boligrafo beltza zerbait idazteko, eta geroztik ez dudala ikusi... Ez dizut ezer esango, doilorkeria bat izango litzatekelako. Baina hor geratzen da, susmoaren eta zitalkeriaren artean artxibatuta! Honelaxe sortzen dira susmoak doi-doi neure garaunaren bidegunetxoan. Boligrafo batetaz diotsudana bera handiago den beste exenplu bat jartzeko: Amerika kontinente osoko jabetza paperez, sinaduraz, lakrezko zigilu gorriraino nola montatzen den ikusten jakingarria da. Agintea edo indarra duenak oso gora jo du batzutan... Colon itsasoan galdu eta lur berriarekin topo egin zuenean bertan aurkitu zituen "indio" haiek jakin zuten bere begietako leihoetatik ikusi zituzten belauntzi eta gizakume estrainoek bere lurren nagusi zirela. Eta hala zen zeren beste munduko mandatariak hango mendi, baso, gizaki, animalia eta guzti Errege Katolikoentzat aurkitu eta menperatu zituenez, gainera, Alejandro VIak Aita Sainduak Bula bidez zilegitu zuen, mundu erdia Portugal eta Espainiari Jainkoaren legez emaitza eginez.

Gero, Jainkozko zuzenbidea dela medio hartua eta zanpatua izatea zilegi zela ez dago dudarik.

Gutxigorekin galdu nuen neuk nirea propioa zen boligrafo beltza!